

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**BIZKAIKO
ESPERIENTZIA
GELAK
AULAS DE LA
EXPERIENCIA
DE BIZKAIA**

IRAKASGAIAREN TITULUA/TÍTULO ASIGNATURA: [EUSKAL KULTURA](#)

Irarakaslea/Profesora: **Miren Llona**

Ikasgaiaren azalpena/Descripción de la asignatura

Irakasgai honetan faktore historikoak, tradizioak, elementu kulturalak, sinesmenak eta portaerak ikasiko ditugu, egungo Euskal Herriaren garapen politikoa, soziala eta kulturala ulertzeko. XIX. eta XX. mendeetan kokatuko gara nagusiki, baina ez horietan bakarrik, euskal identitate modernoaren aniztasuna ulertzeko esanguratsuak diren aurreko kultura gertakarietara hurbilduko baikara.

Kultura etengabe aldatzen eta hartu-emanen dabilen prozesua da, eta horren emaitza dira adierazpen anitzak eta askotarikoak. Horregatik, irakasgai honetan, eremu geografikoaren osaerari, banaketa politiko eta administratiboari, euskarari (kultur ondare nagusi den aldetik) eta euskal idiosinkrasia desberdinen eraketari erreparatzeaz gain, euskal kultura bereizgarri egiten duten adierazpen artistikoetara (literatura, musika, pintura, arkitektura) hurbilduko gara.

Gaitasunak/Competencias

- Gaur egungo euskal errealitatearen aldaketa eta jarraipen prozesuak azaltzen dituzten faktore sozialak, politikoak eta kulturalak identifikatzea, definitzea eta aztertzea.
- Aldaketa eta jarraitutasun historiko kontzeptuei buruz hausnartzea eta kulturari buruz, eraikuntza prozesu gisa.
- Dokumentu historikoak eta askotariko kultura eta arte adierazpenak aztertzea eta interpretatzea.

- Beste ikasle batzuekin lankidetzan aritzea, ikasgelan eskuratutako ezagutzak eta lankidetzan lanetik eta lan pertsonaletik hartutakoak bilduko dituzten lanak egiteko.

Edukiak/Contenidos

1. XVIII. mendearen amaieraren eta XIX. mendearen hasieraren arteko kultura tradizionalaren krisia Euskal Herrian
2. Karlismoa eta liberalismoa, mundua ulertzeko kontrajarritako bi modu XIX. mendean
3. XIX. mendeko maskulinitatearen eta feminitatearen idealak: familia eta genero ordena berria
4. Aitorren gorputza: Sabino Arana eta XIX. mendetik XX. mendera bitartean irudikatutako euskal nazioa
5. Bizkaiko zubia eta langile kultura: modernitateari egindako erronka soziala XX. mendearen hasieran
6. Emakume modernoa, feminismoa eta emakume abertzaleak XX. mendeko hogeiko eta hogeita hamarreko hamarkadetan
7. Euskal Pizkunde Kulturala: Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia eta Euskal Artisten Elkarte XX. mendearen lehen herenean
8. Arantzazuko Santutegia: frankismoa eta euskal kultur haustura hirurogeiko hamarkadan: Gabriel Aresti, Jorge Oteiza eta Mari Puri Herrero

Metodologia/ Metodología

Ikastaroko 45 eskola orduetatik 30 irakaskuntza teorikoari eskainiko zaizkio eta 15 praktika historiografikoei. Irakaslearen azalpenak ikasleen esku hartzearekin konbinatuko dira, eGELAko materialen iruzkinaren/eztabaidaren bidez bideratuta (testuak, grafikoak, mapak, dokumentalak...). Ikasgelatik kanpo, nahi duten ikasleek ikerketa lan txikiak egin ahal izango dituzte (errezentsioak, saiakera bibliografikoak etab.), irakasleak lagunduta eta gainbegiratuta.

Ebaluazio sistema/ Sistema de evaluación

Ikasketa planean ezarritakoari jarraituko zaio. Irakasgaia gainditzeko ezinbestekoa da eskolen % 80ra joatea. Azken notak honako hauek ere jasoko ditu: ikasleak eskola praktikoetan duen inplikazioa eta ikerketa lan labur bat egitea. Azken lan hori, borondatezkoa dena, irakasleak gainbegiratu beharko du eta eskola orduetatik kanpo egingo da.

Bibliografia/ Bibliografía

Oharra: irakasgaiaren bibliografia osoa programarekin batera dago eta eGelara igota egongo da

. Barruso, P. eta J. A. Lema (arg.): Historia del País Vasco. IV Tomoa. Donostia, 2006.

. Bazán, I. (zuz.): De Túbal a Aitor. Historia de Vasconia. Madril, 2002.

. Camus, B.: Para entender la cultura vasca. Madril: La catarata. 2.012.

. Caro Baroja, J.: Los vascos. Madril, 1971.

. Del Valle, Teresa: Mujer Vasca. Imagen y realidad, Bartzelona, Anthropos, 1985.

. Granja J. L. et al: Breve historia de Euskadi. De los fueros a la autonomía. Bartzelona, 2011.

. Juaristi, J.: Historia mínima del País Vasco. Madril, 2013.

. Montero, M.: Historia General del País Vasco. Donostia, 2008.

. Zulaika, J.: Del Cromañon al Carnaval. Donostia: Erein. 1.996.